

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

400 urte gora begira

HOLANDA, 1608. Hans Lippershey lente fabrikatzaile alemaniarrek teleskopioa asmatu zuen. Legendak dio bi haur –Lippersheyren seme-alabak, agian– lenteekin jolasean zebiltzala haren tailerrean, eta nahi gabe lortutako konbinazio bati esker, urruneko objektuak handiago ikustea lortu zutela. Fenomenoaren garrantziaz ohartuta, asmakizuna Holandako agintariei eskaini zien Lippersheyk, sekretupean. Baina mirari hura erakusteko hainbat demostrazio prestatu zituzten holandarrek. Erakustaldi horietako batean izan zen Jacques Badovere frantziarra, eta bere maisu izandakoari gutun bat idaztea erabaki zuen, asmakizunaren berri emanez.

Maisu hura Galileo Galilei zen, eta 1609ko maiatzean jaso zuen eskutitza. Bertan Badoverek zioen, begi hutsez ikus ezin zitezkeen izarrak beha zitezkeela teleskopioari esker, eta tramankuluaren deskribapen labur eta sinplea egin zion. Nahikoa izan zen Galileok bere lehen teleskopioa egin zezan, organo zahar baten hodia erabiliz lentei eusteko. Holandakoa baino askoz hobea zen italiarrak egindakoa: objektuak askoz gehiago handitzen zituen eta formak ez zituen hainbeste desitxuratzen. 1610eko urtarrilaren 6ko gauean, hodi zahar hura Ilargira begira jarri zuen, gero Jupiterrera begira, zenbait izarretara zuzenduta ondoren... Astronomia modernoa jaio zen.

Tresnaren eskubideak Veneziako Errepublikari eman zizkion, eta hortxe amaitu ziren Galileoren arazo ekonomikoak: objektu berri haren balizko aplikazio militarrek interes handia piztu zuten Errepublikako agintarien artean, eta esker ona dirutan adierazi zioten.



Goian, Galileok egindako bi teleskopio. Asmakizun horri esker, besteak beste, Kopernikoren teoria heliozentrikoa baieztatu zuen. Alboan, Hubble teleskopioa bere orbitan, Lurretik 600 kilometrora.



Baina Galileoren gogoa ez zegoen lurreko kontuetan, zerukoetan baizik.

Ilargiaren kraterrak eta chunka izar ikusten lehena izan zen, baina aurkikuntzarik garrantzitsuena Jupiterren ilargiena izan zen; Kopernikoren teoria heliozentrikoa baieztatu zuen.

Guztira 60 teleskopiotik gora egin zituen Galileok, gehienak nahiko kaxkarrak, urte batzuk geroago Johannes Keplerrek esandakoaren arabera, behintzat. Keplerrek berak, Huygens-ek, Cassinik eta beste hainbatek asmakizunari hobe-kuntza nabarmenak erantsi zizkieten berehala.

Gaur egun, hamar metrotik gorako diametroko teleskopioak daude, 100 metrora iristen diren teleskopioak egiteko proiektuak badira, eta espazioan ere badabilta ale batzuk. Hubble teleskopioak, esaterako, 11.500 milioi argi-urtera dagoen izarra ikustea lortu zuen. Eta merkatuan edozeinek eskura ditzakeen teleskopio merke eta sinpleenek 180 aldiz handitzen dute irudia; Galileoren lehen teleskopioak sei aldiz handitzen zuen, eta Lippersheyrenak hiru aldiz baino ez. ■

ARRASTOAK



BEEFEATER dute izena Londresko Dorreko zaindarien. Henrike VII.ak duela 522 urte sortu zuen polizia berezi hori eta, dirudienez, izena –haragijale esan nahi du– soldataren zati bat txahal-haragitan ordaintzen omen zietelako sortu zen. Beefeater du izena ginebra marka ezagun batek ere, eta hain zuzen, gorriz jantzitako guardia da markaren irudia. Bada, bost mende baino gehiago pasa eta

gero, iaz lehen aldiz emakume bat hasi zen beefeater lanean. Horregatik, ginebra markak botila berezia merkaturatuko du martxoaren 8an, Emakume Langileen Egunaren kariara. Botilaren etiketan, lehenengoz, emakume bat agertuko da. Baina egun hura ginebra honekin ospatu nahi duenarentzat ez da erraza izango horrelako botila bat lortzea, 200 besterik ez baitituzte egin.